

/2021 FORU AGINDUA, koa, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak emana, zeinaren bidez eguneratzen baitira irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuan jasotako zenbatekoak eta ehunekoak (foru dekretu horren bidez, Nafarroako etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautu ziren), birgaitze babestuko jarduketak sustatzeko ezarritako zenbait laguntza ekonomikori dagokienez.

Nafarroan, birgaitze babesturako egungo laguntza-sistema irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen (foru dekretu horren bidez, etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautu ziren). Beraz, 2022. urtea hasitakoan, 8 urte baino gehiago egonen dira igarota indarra hartu zuenetik.

2013ko irailetik aurrera, Estatuko KPI orokorra % 9 igo da (2013ko iraila – 2021eko urria, ezagutzen den azken datua), baina % 14,5 Etxebizitza taldearen kasuan. 2022rako aurreikusitako modulu haztatua (1.325,71 euro) % 6,35 handiagoa izanen da 2013ko modulua baino (1.246,53 euro). 2022an, energia-efizientziarako laguntzen deialdi berriak onartu eta aplikatuko dira, Europako SEM funtsekin finantzatuko direnak, eta nabarmen handituko dituzte Nafarroako herritarrek energia-efizientziagatik jasotzen ahal dituzten dirulaguntzak.

Justifikatuta dago birgaitze babestuaren arloan ematen diren dirulaguntzak eguneratzea, denbora dezente iragan delako eta emandako dirulaguntzak termino errealetan eguneratu behar direlako, panorama berri bat zabaldu delako Europako funtsak onetsita, eta etxebizitza arloko politikaren ikusmoldea aldatu delako; izan ere, ikusmolde hartan, eraikitakoa lehenetsi nahi da eraikitzeke dagoenaren gainetik eta lehendik dagoen hiri trinkoa berreskuratzea garapen berrien gainetik, zirkulartasuna sustatu nahi da, garrantzi handia ematen zaio energiaren eraginkortasunari eta murriztu

gogo da kontrolik gabe kontsumitzea lurzorua, agortzen den ondasun bat den aldetik.

61/2013 Foru Dekretu horren lehenengo xedapen gehigarriak dagoeneko jasota du eguneratzeko formula bat, honako hau aurreikusten baitu: *“foru dekretu honetan jasotako alderdi hauek aldi behin eguneratzen eta berrikusten ahalgo dira etxebizitzaren arloan eskumena duen kontseilariaren foru aginduaren bidez:*

(....)

b) *Foru dekretu honetan jarduketa babesgarri ezberdinak sustatzeko ezartzen diren laguntza ekonomikoen zenbatekoak eta portzentajeak, baita horien balizko hartzaileen diru-sarrerak eta aurrekontu edo dirulaguntza ezberdinen mugak ere.*

(.....)”

Proposatutako berrikuspenarekin, gorantz aldatzen dira etxebizitzaren irisgarritasun-baldintzak hobetzearekin zerikusia duten jarduketaren dirulaguntzak. Era berean, laguntzak handituko dira jarduketaren xedea baldin bada toki-erakunde baten edo enpresa publiko baten jabetzako etxebizitza bat birgaitzea, etxebizitza hori errentamenduan jarri nahi denean. Bukatzeko, pertsona fisikoentzako dirulaguntzei dagokienez, kobratu beharreko dirulaguntzen gehieneko mugak eguneratzen dira.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41. artikulua ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

1. Honako honen arabera eguneratzea irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 55. artikulua 2. apartatuko taulan jasotako ehunekoak (foru dekretu horren bidez, Nafarroako etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dira):

AUZOTARREN ERKIDEGOAK	DIRUZ LAGUN DAITEKEEN AURREKONTUAREN GAINEKO DIRULAGUNTZAREN PORTZENTAJEA
<p>A) Eraikingintzaren Kode Teknikoko DB-HE aplikatzeko moduko eraikuntza izan ez zuten etxebizitza-eraikinetan, eraikinaren inguratzaille termikoaren hobekuntza, haren isolatze-maila handitzearen, Eraikingintzaren Kode Teknikoak berritik eraikiak diren eraikinetarako ezarritako betekizunak erdietsiz (CTE-DB-HE.1 Energia-eskaera mugatzea). Horretarako, eraikinaren inguratzaille termikotzat ulertuko da kanpoaldearekin kontaktuan dauden haren eraikuntza-elementuen multzoa. Hona, aipatu elementuak: kanpoko eta barneko fatxadak, estalkia eta ataripeetako eta hegaletako forjatuak.</p>	% 40.
<p>B) 25 urte baino gehiagoko eraikinetan igogailua paratzea, baldin eta ez bazuten, eta irisgarritasun unibertsalari eta ororentzako diseinuari buruzko araudi berariazkora egokitzea, eraikinaren sarreratik etxebizitza guztien sarreraraino.</p>	% 60
<p>C) Dagoeneko igogailua zuten 25 urte baino gehiagoko eraikinetan, irisgarritasun unibertsalari eta ororentzako diseinuari buruzko araudi berariazkora egokitzea, eraikinaren sarreratik etxebizitza guztien sarreraraino.</p>	% 40
<p>D) Igogailurik ez zuten 25 urte baino gehiagoko eraikinetan igogailua paratzea eta irisgarritasun unibertsalari eta ororentzako diseinuari buruzko araudira partzialki egokitzea, erabat egokitzeko ezintasuna edo zailtasun larria justifikatuta.</p>	% 40
<p>E) Dagoeneko igogailua zuten 25 urte baino gehiagoko eraikinetan, irisgarritasun unibertsalari eta ororentzako diseinuari buruzko araudira partzialki egokitzea, erabat egokitzeko ezintasuna edo zailtasun larria justifikatuta.</p>	% 20
<p>F) Eraikingintzaren Kode Teknikoko baldintzak (CTE-DB-HE-2. Instalazio termikoen errendimendua) eraikinetan betetzen dituzten instalazio termiko zentralizatuen efizientzia hobetzeko jarduketaren kasuan.</p>	% 40

G) Etxebizitzetako barne-instalazioaren eraztunketaren kasuan, horixe denean soluzioa indarreko araudiak ezartzen duen baldintza betetzeko; hots, etxebizitzakako kontsumo-erregulazio eta -neurketarako sistemak eta elementuak instalatzeari buruzkoa.	%20
--	-----

- Eguneratzea irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 55. artikulua 3. apartatua jasotako zenbatekoak (foru dekretu horren bidez, Nafarroako etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dira). Honela idatzita geldituko dira:

3. Hona, zaharberitze espediente bakoitzean emanen diren gehieneko dirulaguntzak:

- Auzotarren erkidegoek sustatutako espedienteetan, espediente horretako etxebizitzaren kopurua 5.000 euroekin biderkatuz ateratzen dena izanen da, salbu eta artikulua honetako aurreko apartatuko taulako c) eta d) letretan jasotako auzotarren erkidegoen kasuan; halakoetan, izan ere, muga 6.000 eurokoa izanen da etxebizitza bakoitzeko c) kasuan, eta 7.000 eurokoa etxebizitza bakoitzeko, berriz, d) kasuan.

- Igogailurik ez duten eta erabateko egokitzapena egin duten eraikinen kasuan, hau izanen da gehieneko dirulaguntza: 10.000 euro bider espediente horretan jasotako etxebizitzaren kopurua, salbu eta komunikazio gune bertikal bakoitzean dagoen etxebizitza kopurua 11tik beherakoa bada; kasu horretan, muga 13.000 eurokoa izanen da etxebizitza bakoitzeko. Igogailua duten baina egokitzapen erabatekoa ez duten eraikinen kasuan, hau izanen da gehieneko dirulaguntza: 3.000 euro bider eraikinaren etxebizitza kopurua.

- Xedetzat inguratzaile termikoa zaharberitzea duten espedienteen kasua, hau izanen da gehieneko dirulaguntza: 6.000 euro bider espedienteetan jasotako etxebizitza kopurua.

- Zaharberitze espedienteetan onuradunak pertsona fisikoak badira, hau izanen da gehieneko dirulaguntza: 13.000 euro etxebizitza bakoitzeko, salbu eta lehentasunez zaharberitu beharreko eremuetan dauden etxebizitzak badira edo familia bakarreko etxebizitzak (zaharberitze-lanen ondorioz artean ere familia bakarrekoak izaten jarraitzen dutenak); kasu horretan, gehieneko dirulaguntza 26.000 eurokoa izanen da etxebizitza bakoitzeko. Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, familia bakarreko etxebizitzaren kontzeptuaren barnean etxebizitza bakartuak edo horizontalki atxikitakoak sartuko dira, baita azken horiek beheko solairuan garaje edo trasteleku mankomunatuak partekatzen badituzte ere. Inola ere ez dira familia bakarreko etxebizitzatzat hartuko bertikalki gainjarritako eta bestelako erabilera duten unitateak dituen eraikin batean sartutako etxebizitzak, salbu eta horiek guztiak etxebizitza bakarrari lotuak badaude.

- Foru dekretu honen 57. artikuluan xedatutakoarekin bat tramitatzen diren zaharberritze espedienteetan, hau izanen da gehieneko dirulaguntza: 12.000 euro bider espedientean jasotako etxebizitza kopurua.

- Xedetzat eraikinetako instalazio termiko zentralizatuen efizientzia hobetzea duten espedienteetan, gehieneko dirulaguntza izanen da 6.000 euro espediente horretako etxebizitza-kopuruarekin biderkatzetik heltzen dena. Etxebizitzen barne-instalazioaren eraztunketarako obren kasu zehatzean, hori denean soluzioa aplikatu beharreko araudiak ezarritako baldintza betetzeko, hots, kontsumoaren erregulazioa eta neurketa etxebizitzak egitearena, gehieneko dirulaguntza izanen da 3.000 euro espediente horretako etxebizitza-kopuruarekin biderkatzetik heltzen dena.

3.- Eguneratzea irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 57. artikuluko 3. apartatuko zenbatekoak eta ehunekoak (foru dekretu horren bidez Nafarroako etxebizitzaren arloko jarduketara babesgarriak arautzen dira). Honela idatzita geldituko da:

3. Nafarroako Gobernuak, etxebizitza-arloan eskudun den departamentuaren bitartez, zilegi izanen du zaharberritze-obren kostuaren % 75eko dirulaguntza bat ematea, gehienez ere 60.000 eurokoa izanen dena etxebizitza bakoitzeko, beharrezkotzat jotzen dena:

– Toki-erakundeen jabetzakoak diren etxebizitzetara haiek alokatu ahal izateko egoki diren baldintzak emateko. Toki-erakundeak, behin-behineko kalifikazioa eskatzen den unean, frogatu beharko du etxebizitzak azkeneko urtean ez direla errentamendurako edo lagapenerako izan.

- Toki-erakundeen edo sustatzaile publikoen jabetzakoak diren behe solairuko edo solairuarterko lokalen erabilera aldatu eta etxebizitza izan daitezten, posible eginez bizigarritasun-zedula lortzea, aurretiaz betetzen badira hirigintzako araudia eta bizigarritasun-baldintzak, martxoaren 22ko 142/2004 Foru Dekretuaren, Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzetan bizi ahal izateko gutxienezko baldintzak arautzen dituenaren, II. eranskinean jasotakoak.

Zaharberritutako edo sortutako etxebizitzak errentamendu-araubidekoak beharko dira izan, behin betiko zaharberritze-kalifikazioaren edo kasuko bizigarritasun-zedula lortzearen ondoko 10 urteetan zehar. Dirulaguntza jasotzeko, errentamendu berrien kontratuak aurkeztu beharko dira, data horietatik aurrera urtebete igaro baino lehenago. Etxebizitzen araubide-aldaketak ekarriko du jasotako dirulaguntzaren parte proportzionala itzuli behar izatea, 10 urteko epea amaitu arte gelditzen denboraren arabera.

4. Foru agindu honek 2022ko otsailaren 1ean hartuko du indarra, eta egun horretatik aurrera zer espedientetarako eskatzen den behin-behineko kalifikazioa, espediente haiexei aplikatuko zaie.

5. Foru agindu hau igortzea Nafarroako Etxebizitza Kontseiluko kideei eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira.

6. Foru agindu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, baita etxebizitzaren arloko argibideak ematen dituen webgunean ere (www.vivienda.navarra.es), behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, (e)ko aren (e)(a)n

LURRALDE ANTOLAMENDUKO, ETXEBIZITZAKO, PAISAIAKO ETA
PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO KONTSEILARIA

José María Aierdi Fernández de Barrena